

SANTUTXUKO EUSKAL ESKOLA 25 URTE LANEAN

Garaiz kanpo edo zertxobait berandu baldin bada ere, oraindik 1990-1991. ikasturtearen barruan dihardugunez, beren-beregi aipatu nahi nuke, aldizkari honetan rokia eginez, Bilboko Santutxuko auzategian, azaroan (19-24), bertako Euskal Eskolen hogeita bostgarren urtemuga zela eta burututako kultur astea. Besterik beste, elkarrizketak, erronomia, berbena, kalejirak, umeentzako jolasak, txistu kontzertua, abesbatzaren kantaldia, antzerkia, zinema, fulbito, prentsaurrekoa eta adiskidetasunezko bazkaria izan genituen. Kultur aste bete-betea, beraz!

Sarritan, ageriko zein azaleko egintza entzutetsuetan jarri izaten ditugu gure belarriak eta begiak. Hor ditugu, adibidez, UNESCO-k 1990. urtea Alfabetatzearen urtea izendatu zuela eta gure artean hainbeste diru «erre» duen LETRAKIT deritzanaren inguruan burututako egintzak. Itxura eta zarata ugariegi, nonbait, bazterretan, baina oihartzun gutxiegi jendearengan.

Bitartean, eguneroko bizitzan, etengabeki, egunerik egun eta urterik urte burutu izan diren hainbat eta hainbat egintza eta ahalegin eskailarapean edo baztertuta. Horri hauek, Santutxuko euskal eskolek burututakoak laburkiro aurkeztean, euskararen aldeko halako egintza guztien oihartzun izan gura dute.

Era berean, AEK-ri jasaten ari den **une** historiko latz eta garrantzitsu honetan itxaropenaren argia piztu nahi diot, hainbeste fruitu eder ekarri digun bide horretatik adoretu jarrai dezan, Euskarak iraun nahi badu, lanean dihardugunon eta beste hainbesteren ahaleginak behar ditu eta.

Aipaturiko kultur astea, Santutxuko euskal eskoletan ikasle zein irakasle aritutakoak berralkartzeko bide ere izan zen. Tamalez, batzu, hala nola Juanjo Bastera gure adiskide sutsu eta jatorra (1990.eko maiatzean istripuz hil zena) ez genituen gure artean izan. Dena den, euskararen «lekukoa», eskuz esku, hogeitabost urtetan zehar ibili ondoren, oraindik piztuta, bizi-bizirik dirau euskaltzaletasunaren zuziak gure artean, gazteagoen txanda heldu delarik.

Euskal Eskola hauetan nire bizitzako urterik ederrenak erabili ondoren (17 urtetan aritu izan naiz bertan euskara irakasten) pozez beterik ikusi izan dut neke ugariz erein eta ardura handiz zaindutako landareen etengabeko fruitu ematea. Pertsona askoren ahaleginez eta ekimenez bihurtu da Bilbo erraldoi honetako auzategi hau bertako auzategirik euskaldunena.

Une honetan, Karmeloko Karmeldarren etxearen babespean luzaroan aritu ondoren, euskaltegi berri bat sortu da bertan, euskarari bultzada ematen diharduela.

Honako hau irakurri genuen kultur aste horretako esku paperetan: «Santutxu Euskal Eskolek, eragozpenak eta oztopoak gairiditurik, irmeki iraun du 25 urtetan zehar jo eta ke lanean, euskaldunak alfabetatzen, erdaldunak euskalduntzen, irakasleak gertatzen, Euskaltegi berriak bultzatzen, AEK burubelarri laguntzen, esperientzia eta metodo berriak burutzen, Auzotegia eta Bilbo euskaltzaleago bihurtuz eta abertzaleago eginez».

Hogeitabost urte luze eta emankor horien historia laburra egiteko atera zen aldizkarirako idatzi nituen lerrook eskaintzen dizkizuet:

Atsegin handiz ospatzen dugu Santutxuko Euskal Eskolen 25. urteurrena. Gazte adoretzu batzuk, Gaztedi dantza taldekoek eta San Anton abesbatzakoek elkartu eta egituratu zituzten hor hemenka ematen ari ziren euskarazko eskolak Karmelo eta Begoñazpiko parroketan. Urteetan zehar, Karmelo eta San Antongo eleizen babespean sortu, hasi eta indartutako abertzaletasunaren ondorio izan ziren. Eskola hauetan ehundaka irakasle trebatu izan da eta milaka ikasle euskaldundu edota alfabetatu. Urte luze eta oparo horietako emaitzak gogora ekartzen hasiz gero, honakook azpimarra daitezke:

- Irakasleak trebatzeko ikastaroak.
- Auzategian abertzaletasuna zein euskaltzaletasuna bizteko eginiko hitzaldi, kantaldi zein bestelako ekintza ugariak (Olentzaro, Santa Ageda, Kultur Asteak, jaialdiak, etab.).
- Beste auzategi batzutan (Uribarrin, Otxarkoagan, Boluetan,...) euskaltegi berriak sortzen laguntzea.
- Udako barmetegi-tako lehen ikastaroak antolatzea (Indibitín, Markinan, Aramaion,...).
- Ikastolara ez zihoazen haurrentzat euskararako eskolak jartzea eta geroago (taldea ugaritzean erantzun ezina sortu zenean) euskara eskola publikoetara zein ikastetxe pribatu-erata eramateko burruka gogorrean aritzea.
- Ikasleak, urtean zehar ikasitako euskara praktikatzeko baserrietara bidaltzea.



- Euskararen irakaskuntza errazteko eta biziagotzeko metodologia lanak bultzatzea. (Hainbatetan, bertako irakasleen ekimenez sortua izan zen EUSKALDUNTZEN metodoa).

- Eskola hauen inguruan eta babespean sortu zen bertsoaritzako eskola ere.

- Santutxuko Euskal Eskolok eman diote AEKri Bilbo inguruan euskarririk handiena.

Ibilbide luze horretan, pertsona eta erakunde ugari partehartu dute eskolon inguruan burutu diren ekintzetan. Ezinezkoa gertatzen zaigu guztiak banan-banan, gaur, hemen gogoratzea. Eskerrik beroenak guztiei.

- Ibilbide horretan izan da eragozpen eta oztoporik ere. Besterik beste, honakook:

- Eskolak erosotasunez emateko gela egokirik eza.

- Gelak hainbat toki ezberdinetan sakabanatuta izatea.

- Azpiegiturako gastuetarako zein irakasleei egokiro ordaintzeko diru falta.

- Irakaskuntza metodoen eskasia (batez ere hasieratan).

- Egonkortasun ezaren ondorioz urtero irakasle berriak prestatu beharra.

- Diru faltaren ondorioz irakasleak egun osoko dedikazioz euskara irakasten eduki ezina.

Aurreko zailtasunak gaindituz aurrera egin dugu, une honetan, hainbat ahalegin, buruhauste eta izerdiren ondoren Euskaltegi eder bat dugularik.

Nork zenbatu, baina, zenbat ordu eskaini izan dituzten 25 urteotan zehar Santutxuko euskaltzale sutsuek (irakasleek zein ikasleek) euskararako eskolok aurrera ateratzeko?

Gorago bide batez aipatu dugunez, kontezinak dira, euskal eskolan inguruan burutu izan diren ekintzak ere. Jende ugari partehartu izan du, euskarari zion maitasun hutsak eraginda. Esan bezala, ahalegin guzti horiei esker dugu gaur geure Santutxuko auzategi hau Bilboko auzategirik euskaldunena.

Itxaropentsu begira diezaiokegu, bada, etorkizunari, orain arte bezala etengabeki eta adoretu lan eginez gero, euskara gure inguruetan, egunerik egunera gehiago indartzea lortuko baitugu.

Aste honetako ekintza ezberdinak ere, lehenaren oihartzun, orainaren lekuko eta etorkizunaren irrintzi izan nahi dute, euskara ikastea, lantzea eta eguneroko bizitzan erabiltzea abertzale guztion eginkizun eta konpromezua dugu eta.

P. Uribarren